


FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jardueretan gure baliozko proposamena eta gure zerbitzua ekoizteko, guk geuk egin behar ditugun ekintza eta prozesu garrantzitsu guztiak zehaztuko ditugu.

Ekoizpenaren aldetik, Samsungek bidaliko dizkigun mugikorrek guk konfiguratuko ditugu, gainera, gure diseinu pertsonalak sartuko dizkiogu, denbora guztian helduentzat bideraututa dagoela kontuan hartuz.



Plataformako edo sareko jarduerak ere garrantzitsuak izango dira, hauetatik iritsiko delako jendearengana gure mugikorren informazio dena. Horrez gain, diruaren kudeaketa ere garrantzitsua izango da, etekin handiak izateko erabilera egokia eman beharko diogulako.

Bestalde, gure abilezietan oinarrituta, gutako bakoitzak egin behar ezberdinak edukiko ditu. Adibidez, Julenek diru kontuak eramango ditu. Bere lana funtsezkoa da enpresarentzako eta aurretik esperientzia duenez, ekonomia eta marketin ikasketan ibili zelako, diru kontuak, iragarkiak... eramango ditu. Horrez gain, aliantza asko egin ditugunez, garrantzitsua da besteekin komunikatzeko erraztasuna duen pertsona bat edukitzea. Garazik abilezia hori du, beraz, bere lana enpresa ezberdinekin harremanak mantentzea izango da eta horrela beraiekin aliantzak mantentzea. Azkenik, Lukak eta Itsasok mugikorraren programazioa sortu eta ezarriko dute, biek teknologiako munduan oinarritutako ikasketak egin dituztelako eta enpresaren kideak direnez, mugikorrek nola egin nahi ditugun inork baino hobeto dakitelako.

Bukatzeko, arazoei aurre egiteko prest egon behar gara. Kostuak irabaziak baina handiagoak badira edo programan arazoak baldin badaude. Hau gertatzea guztiz normala da, beraz, irtenbideak izan behar ditugu arazo hauek gehiago ez gertatzeko. Saltzerako orduan erosleek arazoak edukiko balituzkete, MediaMarktekoek lagunduko zieten, baina, hauek arazoari aurre egiteko gai ez badira guri esango ziguten.